

Hegaztiak identifikatzen ikasteko ibilaldia egingo dute, maiatzaren 1ean, IV. Puntaik Punta Debagoieneko Bidezidorren Jaialdian. Hamaika ekintza izango dira hilaren 5era arte, eta Eskoriatza izango da gune nagusia.

Kantuz erdietsitakoa

Karmele Uribesalgo Alzola
Eskoriatza

Arreta jarritz gero, hegazti ugariarekin egin ohi da topo kale-ara ateratzean, eta are gehiago mendi buelta bat ematean. Hala ere, oro har, zaila izaten da espezieak identifikatzea. Aurten laugarren urtez antolatuta dute Puntaik Punta Debagoieneko Bidezidorren Jaialdia, eta hegaztiak identifikatzen ikasteko ibilaldia egingo dute tartean, maiatzaren 1ean, Eskoriatzatik abiatuta. Besteak beste, mendi irteerak, tailerrak eta kontzertuak izango dira maiatzaren 5era arte, eta Eskoriatza izango da gune nagusia.

Hegaztiak identifikatzen ikasteko bost kilometro inguruko ibilbidea egiteko aukera izango da asteazkenean. 10:00etan

Eskoriatzatik abiatu, eta Bolibar elizate aldera joango dira parte hartzaileak. Maite Laso Aranzadi zientzia elkarteko kideak gidatuko du ibilaldia, eta hark azaldu du «ingurumena ezagutzea» dela helburua. Hegaztien behaketak naturaren kontserbaziorako



Trikimailuak daude hegaztiak identifikatzeko; uste dugun baina espezie gehiago identifikatzeko gai gara»

Maite Laso
Aranzadi zientzia elkarteko kidea eta gidaria

duen garrantzia eta erabilgarritasuna ere azalduko du Lasok. Nabarmendu duenez, hegaztiei behar bezala behatzeko ezinbestekoa da «animaliak errespetatzea eta isiltasuna mantentzea».

Bi modu daude hegazti espezieak identifikatzeko: ikusita edo entzunda. Lasok dioenez, hasieran errazagoa da hegaztia ikusita jakitea zer espezietakoa den. Horretarako «trikimailuak» daude azaldu du. Tamainak eta habitata garrantzi handia dute, esaterako. Horrez gain, arreta jarri behar da lumajean, kolorean, moakoan eta hegaztiaren jokakeran.

Arrasto ugari ematen du hegaztien kantauk ere. Hala ere, Lasok adierazi du «hainbat erregistro» izaten duela espezie bakoitzak, eta horrek zaildu egiten duela identifikatzeko lana: «Esperientzia behar da; pixkanaka ikasten da».

Maiatza izaki, kumeak izateko garaian egongo dira hegaztiak. Aranzadiko kideak azaldu due-



Amilotx urdina. SHUTTERSTOCK-ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

nez, enarak, kukuak eta sorbeltzak ikusteko aukera izango da irteeran. Gipuzkoan berrehun espezie inguru ikus daitezke, eta 30-40 ikusi ahal izango dituzte asteazkenean. Negua Afrikan igarotzetik iritsi berriak diren hegaztiez gain, urte osoan Gipuzkoan egoten direnak ere ikustea espero du Lasok, hala nola txantxangorriak, kaskabeltzak, amilotzak, miru gorriak eta zapelatzak.

Izena eman beharra dago

Edonork egin dezake ibilaldia. Familientzat dago pentsatuta, batez ere, eta aurretik ez da behar ezagutzarik. «Uste dugun baino espezie gehiago identifikatzeko

gai gara», adierazi du Lasok. Hegazti gidak banatuko dituzte antolatzaileek, eta panel informatiboak ere izango dituzte. Prismatikoak eramatea gomendatu du gidariak, eta Aranzadiko kideek teleskopioa ere eramango dute hegaztiak gertuagotik ikusteko. Oinarritzko kontzeptuak ikasiko dituzte parte hartzaileek: «Horrelako ibilbideetan, jendeak erraz ikasten du hamar bat espezie identifikatzen».

Aldez aurretik izena eman beharra dago ibilaldian parte hartzeko. Bi bide daude: 943-79 64 63 edo 943-71 89 11 telefono zenbakia eta puntaikpunta@debagoiena.eus helbidea.

PUNTAIK PUNTA

Maiatzaren 1a, asteazkena

08:00. Mendi ibilaldia: Arrasate-Atxorrotx-Eskoriatza.
10:00. Hegaztiak identifikatzen ikasteko ibilaldia.
12:00. Bisita gidatua: Arantzazu, euskal arte garaikidearen gunea.
17:00. Bisita gidatua: Oñati, muino ugariako tokia.

Maiatzaren 2a, osteguna

09:00. Mendi ibilaldia: Eskoriatza-Degurixa.

Maiatzaren 3a, ostirala

09:00. Mendi ibilaldia: Landareak ezagutzen.
10:00. Mendi ibilaldia: Arrasate. Karraskain-Lizueta-Lezetxiki.
16:00. Sendabelarrak ezagutzen. Ibilaldia eta tailerra.
17:30. Haurrentzako emanaldia: Honolulu ikuskizun musikala.
18:30. Rock Kalean.
20:30. The Potes.
22:30. Roba Estesa.

Maiatzaren 4a, larunbata

08:00. Mendi ibilaldia: trenbidea.
08:30. Mendi ibilaldia: Eskoriatza-Aranguren-Leizargarate-Eskoriatza.

08:30. Mendi ibilaldia: Arrasate-Eskoriatza-GR 12-Latabide.
09:30. Nordic walking ikastaroa.
10:00. Mendi ibilaldia: Mandobike PR-Gi 99.
10:00. Mendi ibilaldia: Aitzulo, Debagoieneko leihoa.
10:00. Orientazio tailerra.
11:00. Bisita gidatua eta hegazti behaketa.
11:00. Bisita gidatua: Ezagutu Atxalde gaztandegia.
11:00. Tailerra: Ortu belarrak.
11:30. Tailerra: Serigrafia begetala.
13:00. Olatz Salvador.
16:00. Orientazio proba.
16:00. Sendabelarrak ezagutzen. Ibilbidea eta tailerra.

17:00. Haurrentzako emanaldia: Txantxariak taldea.
17:00. Bizikletak konpontzeko tailerra.
17:00. Tailerrak: heraldika, malabareak, Erdi Aroko jolasak...
18:00. Fois Jaunak.
20:00. Jasan.
22:30. MCOnak.
00:00. Dj Moto.

Maiatzaren 5a, igandea

08:00. Mendi ibilaldia: Arrasate-Atxorrotx, Vasco-Navarro bidetik.
08:30. Mendi ibilaldia: Eskoriatza-Leintz Gatzaga-Atxorrotx.
09:00. Kalejira txistulariekin.
09:30. Espeleoabentura Arrikruz-Oñatiko kobetan.
10:00. Mendi ibilaldia: Elgeta

1936-1937. Intxortako ibilbide gidatua.
10:30. Atxorrotxera igoera.
11:00. Eskalada eta arku tiroa.
12:00. Maider Zabalegi.
16:00. Tailerra: plastiina ekologikoa.
16:30. Haurrentzako jolasak harearekin.
18:00. Erromeria: Joselu Anaiak.

INSTALAZIO
TAPIA
ELEKTRIKOAK

TELEKOMUNIKAZIOAK

Zubikoeta Industrialdea, 9
ATAUN ☎ 943 889 594
info@tapiainstala.com
www.tapiainstala.com

Mahala
BASERRIKO PRODUKTUAK

Jogurtak eta postreak
Gaztak
Izozkiak
Haragiak
Ondu xerratuak
Hestebeateak

Zeliakoentzat gai dira gure produktu guztiak

Mahala Baserrria - Leaburu (Gipuzkoa)
943 670 724 - www.mahala.eus